



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak**

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainak 7**

**Vitoria-Gasteiz, 7 de junio de 2022**

## Lana eta Enplegua

### **ERAKUNDE SINDIKALEN FUNTZIONAMENDURAKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA**

Jaurlaritzaren Kontseiluak, Idoia Mendia lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuak proposatuta, sindikatuen funtzionamendurako diru-laguntzen deialdirako oinarriak onartu ditu gaur. Deialdiaren zenbatekoa 1.055.678 eurokoa da.

Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariak duten erakunde sindikalak sartu ahal izango dira, eta laguntzak jarduera sindikalaren gastu arruntak finantzatzeko erabili beharko dira, bai eta bulego eta zerbitzuen antolamendurako eta funtzionamendurako beharrezkoak diren gastu guztiak finantzatzeko ere.

## Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

### EUSKADIK LURZORUAREN BABESARI MODU INTEGRALEAN HELTZEN DION LEHENENGO ESTRATEGIA IZANGO DU

- **Estrategia berri honekin, Eusko Jaurlaritzak lurzoru osasungarriak lortu nahi ditu biodibertsitaterako eta pertsonentzat, eta degradazio garbia zero izatea mendearen erdirako**
- **2022-2030 aldirako jasotako aurrekontu operatiboa 137,5 milioi eurokoa izango da, eta dokumentuan aurreikusitako 69 jarduerak garatzera bideratuko da**

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Lurzorua Babesteko 2030erako Estrategia onartu du, hau da, lurzoruaren kudeaketari modu integralean heltzen dion lehenengo estrategia, lurzoru kutsatuetan lan egiteko ikuspegi tradizionala gaindituz; izan ere, Euskadi horren erreferentzia bat da europar eremuan. Era horretan, estrategia aurrendari bihurtzen da bere ikuspegiagatik, bai Euskadin eta bai Estatuan. Europaren kasuan, estatu edo eskualde bakar batzuek soilik – adibidez: Suitza, Eskozia, Gales eta Holanda- dituzte horrelako politikak lurzoruaren kudeaketa integralerako.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak koordinatu eta erakunde ugariaren parte-hartzearekin gauzatu den Estrategia honek helburu handinahi bat ezartzen du, alegia, ingurune horren degradazioa mendearen erdirako eragoztekoa, neutroa izateraino; eta, aldi berean, beraren kontserbazioa bermatzea biodibertsitaterako eta pertsonentzako osasunaren ikuspuntutik.

Dokumentuak onartzen du giza jarduerak badutela eragina lurzoruaren kalitatean, eta garapen sozial eta ekonomikoak haren erabilera dakarrela nahitaez. Testuinguru horretan, bi helburu nagusi ezartzen dira: alde batetik, lurzoruaren okupazioa minimizatzea, jadanik antropizatuta dauden lurzoruak balorizatzearen bidez, hau da, giza jardunak aldatutako lurzoruak balorizatzearen bidez; eta, bestetik, lurzoru birjina erabiltzearen efektuak konpentsatzea, degradazio-prozesuak pairatu dituzten lurzoruak lehengoratzeko beharra ahaztu gabe.

Euskadiko Lurzorua Babesteko 2030erako Estrategiak bost helburu estrategiko definitzen ditu: lurzoruaren kontsumoa murriztea; beraren okupazioaren kudeaketa; inpaktu kaltegarrien kontrako babesa; degradatutako lurzoruak lehengoratzeko, haien berezko funtzioak berreskuratzeko xedez, haien kokagunea kontuan hartuta; eta kudeaketa eta erabilera jasangarriaren bidezko babesa, horretarako prestatutako profesionalen eta sentsibilizatutako herritarren eskutik.

Halaber, Estrategiak finkatzen duen ikuspegia da Euskadiko lurzoruak modu jasangarrian kudeatuta egotea 2050erako, horren bidez lurzoruaren osasuna eta funtzioak epe luzera bermatuz, etorkizuneko belaunaldiek erabili ditzaten.

Helburu hori lortzeko, 2022-2030 aldirako jasotako aurrekontu operatiboa 137,5 milioi eurokoa da, eta dokumentuan aurreikusitako 69 jarduerak garatzera bideratuko da.

### **Euskadiko lurzoruaren diagnostikoa**

Estrategia hau lantzeko, Euskadiko lurzoruen egoerari buruzko aurretiko diagnostiko bat egin da, besteak beste alderdi hauek aztertuz: higadura, lurzoruen materia organikoa, artifizialiazioa/hirigintza-kalifikazioa, azidifikazioa, kutsadura, gazitzea, trinkotzea, biodibertsitatearen galera, desertifikazioa, irristadurak eta mantenugaien desoreka.

Diagnostikoan agerian jartzen da higadurak Euskadiko lurzoruei dakarkien mehatxua, eta, hortaz, adierazten da beharrezkoa dela higaduraren baldintzatzaileak lurraldean esku-hartzeko edo lurraldea kudeatzeko politika orotan txertatzea. Diagnostikoak jasotzen du, halaber, Euskadiko lurzorueta materia organikoaren erresebak egonkortu edo areagotu behar direla, elementu estrateragiko gisa, bai lurzoruen osasuna eta klima-aldaketaren aurrean duten erresilientzia hobetzeko eta bai berotegi-efektuko gasak murrizten laguntzeko.

Diagnostikotik ateratzen den beste datu bat da kutsatuta egon daitezkeen kokagune inbentariatu guztien % 20 merkatura itzuli dela haien gainean esku hartu ondoren, hots, haien kalitatea eta segurtasuna bermatzeko esku hartu ondoren.

Beste alde batetik, agerian jartzen da beharrezkoa dela arreta berezia zuzentzea lurpeko urak dituzten 1.568 hektareetara. Bukatzeko, lehorde-aldien hazkundeak –Euskadikorako klima-aldaketaren eskualde-agertokiaren arabera aurreikusita- desertifikaziorako arriskua areagotu lezake lurralde osoan, neurri desberdinetan, Arabako hegoaldea arrisku handiena duen eremua izanik. Aldi berean, irristaduren hazkunde teoriko bat espero da, berokuntza globalaren eta giza eragimen handiagoaren ondorioz muturreko prezipitazioek izango duten igoeragatik.

### **69 jarduera biltzen dituen ekintza-plana**

Euskadiko lurzoruen oraingo egoeraren diagnostikoa egin ondoren, eskumenak dituzten administrazio eta erakunde publikoen eta inplikaturako beste eragile batzuen lankidetzarekin, 69 ekintza definitu dira lehenengo ekintza-planerako, Euskadiko Lurzorua Babesteko Estrategiaren hedapenaren abiapuntu gisa.

69 ekintza horiek 7 jarduera-eremutan sailkatzen dira: zeharkako ekintzak; lurralde-plangintza; nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza; lurzoru naturalak;

jatorri industrialeko lurzoru kutsatuak; lur induskatuak eta ekonomia zirkularra; eta klima-aldaketa arintzea eta berari egokitzea.

Aurreikusitako jardueretako bat da **hutsik dauden lurzoru degradatuak lehengoratzeko eta berrerabiltzeko politika** bat abiatzea, lurzoru kutsatuen 400 hektarea lehengoratu ahal izateko. Sprilur eta lhobe erakunde publikoen ekintza bateratua kutsatutako lurzoru historiko nagusien berreskurapena bultzatzen ari da. Bizkaiaren kasuan, honako hauek dira aipatzekoak: Santurtziko eremu batzuk; Burtzeña, Barakaldon; Inama, Muxikan, eta Plaia Barri edo Sakoni, Erandion. Gipuzkoan: La Herrera, Pasaian; Oikia, Zumaian; edo Arcelor Mittal, Zumarragan.

Ekonomia zirkularren ikuspegitik, beharrezkoa da **induskatutako lurren berrerabilpena eta balorizazioa** sustatzea, lurzoru kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten kokaguneetan, lurzoruaren kalitatearen bateragarritasun-irizpideak kontuan hartuta. Kasu horietako bat da Ibarzaharra, Trapagaran eta Sestaon gauzatzen ari dena. Babcock-Wilcoxen antzinako instalazioen kokagunea jarduera berriak sustatzeko berreskuratu ondoren, beharrezkoa izan da lurren kota 3 metro inguru igotzea, batez ere uholdeak gertatzeko arriskuagatik. Kota hori igo ahal izateko, erabilitako lurren parte baten jatorria lurzoru kutsatu dezaketen jarduerak jasan dituzten beste kokagune batzuetako proiektuetatik soberan geratu diren lur induskatuak izan dira; era horretan, zaborteaira eramatea saihestu ahal izan da.

Beste alderdi garrantzitsu bat da zer-nolako potentziala duen lurzoruak klima-aldaketaren erronkari heltzeko, **karbonoa lurzoruaren bitartez xurgatzeko** ahalmenagatik. Neikerretik, lurzoruaren xurgatutako karbonoa kuantifikatzeko lanetan ari dira, beraren karbono-finkapena hobetzeko neurri aktiboak ezarri ondoren. Neurri horien adibide on bat hirien inguruko espazio batzuen lehengoratzeko da, hala nola Tonpoiren kasua, Bermeon; Artikutzako presaren birnaturalizazioa, Donostian; edo Aramangelu/Basaldeako nekazaritza-parke ekologikoan esku-hartzearen xede izaten ari diren lurzatiak, Gasteizen.

Azkenik, estrategia zeharkako eremuetatik hedatzeak **lurzoruaren osasunaren jarraipenerako sare** bat abiatzera eramango du, Euskadiko lurzoruaren mapa egitetik abiatuta; halaber, kanpaina eta jarduerak egingo dira gizarte osoa sentsibilizatzeko eta lurzoruaren kudeaketa jasangarrian inplikatzeko.

## Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

### EUSKO JAURLARITZAK 400.000 EURO BIDERATUKO DITU EUSKADIKO USTIATEGIETAN ANIMALIEN ONGIZATEAREN KONTROLA BERMATZEKO

- Barne-prozeduren gastuak eta Welfair kanpoko ziurtagiri independentearenak lagunduko dira diruz
- Welfairrek zorrotz ebaluatzen eta kontrolatzen du animalien ongizatea abeletxeetan, haztegietan eta hiltegietan

Eusko Jaurlaritzak guztira 400.000 euro bideratuko ditu laguntzetara, animalien ongizatearen kontroleko barne-prozedurak egin eta ezartzearen ondoriozko gastuak, arduradunen prestakuntza eta animalien ongizateko Welfair ziurtagiriaren berezko gastuak finantzatzeko.

Laguntza horiek Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuaren Agindu bidez arautzen dira. Laguntza horien onuradunak izan daitezke EAEn egoitza duten erakunde publikoak edo pribatuak, besteak beste nekazaritza-ustiategiak dituzten kooperatibak, enpresak, taldeak edo nekazaritzako beste asoziazio-entitateak edo ustiategi indibidualak, bertako ustiategi guztiak % 100ean barne-auditoretza bidez kontrolatzeko prozedura ezartzeko eragileak badira, eta xedeen artean honako hauek badituzte: animalia-jatorriko elikagaiak ekoiztea eta/edo merkaturatzea, txerrien, erruteko hegaztien, baserriko oilaskoen, esnetarako ardien eta esnetarako behien azpisektoreetan.

#### Zer da Welfair?

Animalien Ongizateko Welfair ziurtagiria da Institut de Recerca i Tecnologia Agroalimentàries (IRTA) elkarteak NEIKER institutuarekin lankidetzan homologatutako ziurtagiri independente bakarra. Europako Welfair Quality eta AWIN® erreferentzietan oinarrituta, zorrotz ebaluatzen eta kontrolatzen du animalien ongizatearen kontrola abeletxeetan, haztegietan eta hiltegietan honako espezie hauetan: ardiak, txerriak, behiak, ahuntzak eta oiloak, oilaskoak, untxiak eta indioilarrak.

#### Diruz lagundu daitezkeen gastuak

Diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira autokontrolerako sistema ezartzearen ondoriozkoak (sistemaren arduraduna prestatzea, autokontrolerako prozedura idaztea, barne-auditoretzak egitea) nahiz WELFAIR ziurtagiriaren ondoriozkoak (ziurtagiria egiteko enpresa azpikontratatzeta eta ziurtagiriaren eskemaren kuotak).

Lehia bidezko konkurrentzian emango zaie laguntza hau jasotako eskabide guztiei. Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 80 arte eman ahal izango da,

gehienez ere 50.000 euro proiektuko. Proiektuak egiteko epemuga 2022ko abenduaren 31 izango da.

Eskabideak aurkezteko epea, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Agindua argitaratu biharamunetik hasi eta hilabetekoa izango da. Pertsona fisikoek presentzialki nahiz elektronikoki aurkeztu ahal izango dute eskabidea.

## Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

### EUSKO JAURLARITZAK GONZALO NARDIZ BENGOETXEA 2022 SARIAK DEITU DITU

- **Hiru kategoria daude: Nekazaritza eta basogintza, arrantza eta elikadura**
- **Sarietarako hautagaitzak aurkezteko Euskadiko bi eragile sektorialen babesa behar da, gutxienez**

"Gonzalo Nardiz Bengoetxea 2022" sariak iragartzeko Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuak emandako Agindua onartu du Eusko Jaurlaritzak. Nekazaritza, arrantza, elikadura eta basogintzaren sektoreetan egindako ibilbide profesionalak aitortzeko ematen dira sari horiek.

Bi urtez behin ematen diren sari hauek Eusko Jaurlaritzako lehenengo Nekazaritza Sailburuaren izena dute, eta 2003az geroztik ematen dira lehen sektorean eta basogintzan izan duten lan-ibilbide luze eta eredugarriarengatik nabarmendu diren pertsonen edo kolektiboen lanaren balioa azpimarratzeko gizaratearen aurrean. Aurtengo edizioan, azkenaldiko aurreko edizioetan bezala, Emakume Nekazarien Estatutua aplikatuko da, lehen sektoreko eta landa-eremuko emakumeen lana ikusgarri bihurtzeko eta aitortzeko.

Aurtengo deialdiko sariak sektore bakoitzeko pertsona edo kolektibo bati edo gehiagori emango zaizkio, Epaimahaiaren iritiz. Aintzatespen publikoko ekitaldi bat eta ohorezko saria jasoko dituzte saridunek. Saria jasotzen duten pertsonak edo kolektiboek izaera profesionaleko inprimakietan aintzatespenaren berariazko aipamena egin dezakete eta establezimenduetan bereizgarria jarri dezakete.

Sarietarako hautagaitzak aurkezteko gutxienez Euskadiko bi eragile sektorialen babesa behar da, eta nolana ere, hautagai izendatutako pertsonaren edo taldearen onarpena izan beharko dute. Honako hauek dira eragile sektorialak:

- Sindikatu izaera duten erakunde profesionalak.
- Nekazaritza- eta arrantza-sektoreetako lanbide- eta enpresa-elkarteak, eta horien federazioak eta konfederazioak.
- Beste elkarte eta federazio batzuk.
- Fundazioak.
- Arrantzaleen Kofradiak.
- Kooperatibak.
- Nekazaritza- eta arrantza-sektoreetako eta elikagai-industriako profesionalak

Hautagaitza horiek, dagokion dokumentazioarekin batera, Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzara bidali beharko dira (Donostia kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz), Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean



ezarritako edozein bide erabiliz. Hautagaitzak aurkezteko epea hilabetekoa da, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik.

### **Aurreko edizioetan sarituak**

#### 2014. urtea

Nekazaritza: Tomás Larrañaga, nekazaritza ekologikoan aitzindaria

Arrantza: Victor Badiola, alturako arrantzaren sektoreko ordezkaria

Elikadura: Artzain Gazta, gazta ekoizten duten artzainen elkarte.

#### 2016. urtea

Nekazaritza: KAIKU sozietate kooperatiboa

Arrantza: ANABAC, Atunontzi Izoztaileen Armadoreen Elkarte.

Elikadura: Bacalao Giraldo SL

#### 2018. urtea

Nekazaritza: Alfredo Montoya

Arrantza: Gipuzkoako Arrantzaleen Kofradien Federazioa

Elikadura: Hijos de José Serrats SA

2020. urtean ez zen saririk eman, pandemia-egoeraren ondorioz ezarritako murrizketengatik.

## Ekonomia eta Ogasuna

### **EAE-KO OSPITALEETAKO GAIXO-TASARI BURUZKO INKESTA EGITEKO INE-REN ETA EUSTAT-EN ARTEKO HITZARMENAREN LUZAPENA**

Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleetako gaixo-tasari buruzko inkesta egiteko Estatistika Institutu Nazionalaren (INE) eta Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTAT) arteko hitzarmena lau urtez luzatzea onartu du, hitzarmenaren klausulak aldatu gabe.

Luzapen hori bi aldeek azken lau urteotan egindako lanaren balorazio positiboaren emaitza da, eta bat dator lankidetzaz horri jarraipena emateko behararekin.

Luzatu beharreko hitzarmenak aukera ematen du: ospitaleetan artatutako gaixo-tasa orokorra ezagutzeko, diagnostiko nagusiaren arabera eta alta kopuruaren bidez; ospitaleko batez besteko egonaldia zehazteko, ospitaleetako altari lotutako diagnostiko nagusiaren arabera; ospitaleetako pazienteen ezaugarri soziodemografikoak eta bizitokia ezagutzeko; eta azterketa epidemiologikoetarako oinarria izateko.

Eragiketaren eremua akutuen ospitaleetara, egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetara eta ospitale psikiatrikoetara ere hedatzen da, eta ospitaleratzea eragiten duten altetara mugatzen da.

Hitzarmenak, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-esparruan ikerketa bakarra egiteko aukera emango du. Horrela, estatistika-planetan aurreikusitako helburuak betetzeko behar den informazioa lortuko denez gero, estatistika-eragiketan bikoiztasunak saihestuko dira eta horrek, aldi berean, baliabide publikoak aurrezteko ekarriko du.

## Hezkuntza

### **HEZKUNTZA SAILAK 2,2 MILIOI EURO BIDERATU DITU LANBIDE HEZIKETAKO ITUNPEKO IKASTETXEETAN MAKINAK ETA EKIPAMENDUAK ESKURATU EDO ERRENTAN HARTZEKO**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, dirulaguntzak deitzen dituen Agindu bat, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeek makinak edota ekipamenduak erosi edo errentan har ditzaten.

2.217.487 euroko diru-kopurua duen deialdi honen xedea da dirulaguntzak ematea, makineria edota ekipamendua erosteko edo errentan hartzeko kuotak finantzatzeko, bai eta makina edo ekipamendu horrek eragindako instalazio-gastuak finantzatzeko ere. Deialdi honek bi lerro bereizten ditu, jarduera-eremuaren arabera:

1. eremua: oro har, modalitate presentzial osoan ezarritako Lanbide Heziketako zikloak ematen dituzten ikastetxe itunduei zuzendua, heziketa-ziklo bakoitzerako ezarritako makineria eta/edo ekipamendu espezifikoa eguneratzeko eta espazioak egokitzeko, ikasteko metodologia eta tresna berritzaileak ezarri ahal izateko. Eremu honek milioi bat euroko kopurua du.
2. eremua: modalitate presentzial osoan ezarritako Lanbide Heziketako zikloak ematen dituzten ikastetxe integratu itunduei zuzendua, 4.0 inguruneen erronkei erantzuteko eta eraldaketa digitalerako eta Lanbide Heziketaren jasangarritasunerako planak ezartzeko. Eremu honek 1.217.487 euroko finantzazioa du.

Ikastetxeetatik jasoriko finantzazio eskaeren balorazioa egiteko, lehen eremuan, batzordeak kontuan hartuko dituen irizpideak honakoak dira: eskaera egiten duen ikastetxeak eskaintzen duen ziklo kopurua; ziklo horietan matrikulaturiko ikasle kopurua; erronketan oinarritutako ETHAZI ikaskuntza-metodologiak ikastetxean duen ezarpen-maila; edo ikastetxearen parte hartzea Hezkuntza Sailak bultzatutako ekintzaitetza-programetan.

Bigarren esparrurako, berriz, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan balorazioa egiteko: erositako ekipamenduaren egokitasuna, 4.0 inguruneko berezko teknologiak inplementatzeko (errealitate areagotua edo birtuala, elkarlaneko robotika, fabrikazio gehigarria, internet industrial...); ekipamendu horrek ikastetxean izango duen irismena; inbertsioak ikasleen eta irakasleen artean izango duen eragina; diruz lagundutako makineriak ikastetxean abiatutako proiektuekin duen lotura; edo teknologia haetan irakasleak prestatzeko planak.

## **Eguneratzea, ezinbestekoa**

Gaur egun, adimen artifiziala, robotika, droneak, 3D inprimagailuak, gauzen Internet, errealitate birtuala edo sare digitalak bezalako berrikuntzak ondasunen eta zerbitzuen ohiko trukea erabat aldatzen ari diren fenomenoak dira. Horiek guztiek, erronka handiak dakartzate enpresa-sektorearentzat eta pertsonen prestakuntzarentzat.

Testuinguru horretan, Lanbide Heziketa ezinbesteko bidelaguna da gaur egun Euskadin, bai pertsonen enplegarritasunerako, bai enpresen lehiakortasunerako. Erronka horiek Lanbide Heziketako ikastetxeen parte-hartze aktiboa eskatzen dute, 4.0 gizarte baten benetako beharretara egokitutako prestakuntza bultzatu eta garatzeko beharrezkoak diren aldaketak egin behar baitituzte. Zeregin honetan, ekipamendu eguneratua eta espezifikoa izatea ezinbestekoa zaie Lanbide Heziketako ikastetxeei.

Joan den ikasturtean, lehen eremuaren barruan, Lanbide Heziketako itunpeko 53 ikastetxek jaso zituzten laguntza ekonomiko horiek, eta 2. eremuaren barruan, 13 ikastetxek.

## Hezkuntza

### **100.000 EURO HEZKIDETZA LANTZEKO ETA GENERO-INDARKERIA PREBENITZEKO PROIEKTUETARAKO**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2022-2023 eta 2023-2024 ikasturteetan hezkidetza landu eta genero-indarkeria prebenitu ahal izateko jarduera-proiektuak garatzeko deia egiten duen Agindua. Deialdi hau Euskadiko Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako itunpeko ikastetxeei zuzendua da.

Gorago aipaturiko hezkuntza-etapak eskaintzeko baimenduta dauden EAEko 50 ikastetxe (gehienez) aukeratzea du deialdi honek helburu, hezkidetzaren eta genero-indarkeria prebenitzearen arloan jarduera-proiektu bat diseina dezaten aipaturiko ikasturteetarako. Jarduera-proiektu horri esker, aukera izango dute hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa ikastetxean era global, sistematikoan eta integratuan lantzeko.

Hautatutako ikastetxe bakoitzari dirulaguntza bat emango zaio. Irakasleen nahiz eskola-komunitatearen prestakuntzarako eta proiektua koordinatu eta hedatzeko jardueri aurre egiteko baliatuko da laguntza hau.

#### **Jarduera-proiektuak 507 ikastetxetan**

Hezkuntza Sailak 2013-2014 ikasturtean Hezkidetza eta Genero-indarkeriaren Prebentzioa lantzeko Gida-Plana abian jarri zenetik, Euskadiko 358 ikastetxe publikok eta 149 itunpekok euren proiektua gartu dute, eta aplikatzen ari dira dagoeneko arlo horietan (hezkidetzan eta genero-indarkeriaren prebentzian).

Aipaturiko Gida-planaren eta egun indarrean den II. Hezkidetza-planaren helburua da hezkuntza sisteman hezkidetza eredia bultzatzea, hau da, pertsonen garapen integralean oinarritutako eskola eredia, sexuaren araberako estereotipoak eta rola albo batera utzita jardungo duena, eta diskriminazio eta genero indarkeria mota guztien kontra eginez. Ikasketak eta lanbidea aukeratzeko genero-joerarik gabeko orientazio akademiko eta profesionala ahalbidetzen duen eskola-eredua bilatzen du Hezkuntza Sailak aipaturiko planarekin, eskola-komunitateko kide guztien parte-hartze eta laguntzarekin.

## Hezkuntza

### 500.000 EUROKO DIRULAGUNTZA ZUZENA UNEDI

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran adostu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, UNED Urrutiko Unibertsitateak Euskadin dituen hiru ikastegiei dirulaguntza zuzena ematea. Laguntza honek 500.000 euroko diru kopurua du orotara.

UNEDen Euskadiko hiru ikastegien artean honela banatuko da dirulaguntza:

| <b>IKASTEGIA</b>     |                  |
|----------------------|------------------|
| UNED VITORIA-GASTEIZ | 117.670 €        |
| UNED BERGARA         | 135.820 €        |
| UNED BIZKAIA         | 246.510 €        |
| <b>GUZTIRA</b>       | <b>500.000 €</b> |

Diru-laguntza hau, Hezkuntza sailaren 2022ko aurrekontuetan UNEDentzat erreserbatutako kopurua da eta unibertsitateen artean matrikulatutako ikasle kopuruaren arabera banatzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta UNEDek 2021eko apirilaren 29an lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmen horrek, beste hainbat gairen artean, UNEDen jardueren finantzazioari buruzkoak jasotzen ditu.

## Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

**ELKARTE EDO FUNDAZIOEK MEMORIA HISTORIKOA  
BERRESKURATZEKO GARATZEN DITUZTEN PROIEKTUETARAKO  
112.500 €-KO LAGUNTZAK ONARTU DIRA**

Eusko Jaurlaritzak bide eman dio gaur memoria historikoa eta demokraziaren eta askatasunaren aldeko borroka berreskuratzeko, ikertzeko eta zabaltzeko proiektu espezifikoak finantzatzeko deialdiari, 1936-1977 aldian, Euskal Autonomia Erkidegoan. Deialdi hau 112.500 €-koa da, eta memoria historikoan diharduten elkarte eta fundazioek gauzatutako ekimenak sustatzera bideratuta dago.

Bi laguntza-lerro horiek eskuratzeko eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, eta proiektu guztiek amaituta egon beharko dute 2022ko abenduaren 31rako.

Behin EHAAan argitaratuta, eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak, justifikazioak eta gainerako ereduak izapidetzeko moduari buruzko zehaztapenak euskadi.eus egoitza elektronikoan egongo dira eskuragarri, eta Gogora Institutuaren webgunetik ere eskura daitezke.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 298.000 EUROREKIN LAGUNDUKO DU TOKI-ADMINISTRAZIOEN BEREZKO ARTXIBO-SISTEMAK ABIAN JARTZEA EDO FINKATZEA**

Kultura eta Hizkuntza Politika sailak 298.000 euroko diru partida bideratuko du 2022ko ekitaldian toki erakundeei beren artxibo sistema martxan jartzeko edo eta sendotzeko dirulaguntzetara. Sei proiektu edo programa mota hauek izango dira finantzarriak:

- Udal eta kontzejuetako artxiboetako funtsak antolatzea.
- Berezko artxibo-sistemak ezartzea eta finkatzea, artxibo-proiektu baten bidez.
- Tresna deskribatzaileak sortzea edo hobetzea dokumentuak kudeatzeko eta hedatzeko politika eraginkorra lortzeko.
- Dokumentu-funtsak balioestea eta aukeratzea, betiere funtsak kontserbatzeko/ezabatzeneko politika global baten atal gisa.
- Kultura-hedapeneko artxibo-jarduerak.
- Artxibo-zerbitzu mankomunitatuen mantentze lanak.
- Artxiboko dokumentuak, artxibo-funtsak eta dokumentu-bildumak digitalizatzeko jarduerak.

Diruz lagundutako programek aurrekontuaren% 50erainoko laguntza jaso ahal izango dute, beti ere, 20.000 euro baino gutxiago bada.

Interesa duten tokiko erakundeek ekainaren 18tik aurrera hilabeteko epea izango dute eskaerak aurkezteko.

2021eko deialdian guztira 64 udal, mankomunitate eta kuadrillak jaso zituzten beraien artxibo-sistemak abian jarri edo finkatzeko dirulaguntzak.



## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK 170.000 EUROREKIN LAGUNDUKO DITU ARTXIBO PRIVATUAK ANTOLATU, DIGITALIZATU ETA HEDATZEKO PROIEKTUAK**

Gobernu Kontseiluak bere gaurko bileran onartu duenez Kultura eta Hizkuntza Politika sailak 170.000 euro bideratuko ditu publikoak ez diren artxiboak antolatu, digitalizatu eta zabaltzera. Artxiboak euskal dokumentu ondarearen parte izan behar dira baina ez dute izaera publikorik eduki behar. Denak izan behar dira 2022. honetan garatutako proiektuak.

Helburu hauek dituzten programak dira diruz lagunduko direnak:

- Artxibo-funts historikoak artxibatzea, batez ere XX. mendeko dokumentazioa dutenak.
- Aldez aurretik datu base batean antolatutako eta deskribatutako artxibo-funtsak digitalizatzea. Proiektu hauek barne hartu beharko dute kontserbazio iraunkorreko artxibo digital bat sortzea eta kopia digital bat sortzea Euskadiko Artxiboen Sistemaren webgunean bidez zabaltzeko.

Interesa dutenek ekainaren 18tik aurrera hilabeteko epea izango dute beraien eskabideak aurkezteko.

Iazko deialdian Kultura eta Hizkuntza Politika sailak artxibo pribatuak antolatu, digitalizatu eta hedatzeko 18 proiektu lagundu zituen diruz. Besteak beste, Aranzadi Zientzia Elkarteak, Euskal Herriko Txistulari Elkarteak, Bellota Herramienta S.L enpresa, Gipuzkoako Atletismo Federakuntza edo Real Automóvil Vasco Navarra daude onuradunen artean.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 190.000 EURO EMANGO DITU EUSKAL KULTURA ONDAREAREN BABESARI BURUZKO IKERKETA-LANETARAKO DIRULAGUNTZETAN**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du 2022. eta 2023. urteetan Euskal Kultura Ondarea babesteko ikerketa-lanak egiteko dirulaguntzen deialdia. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 190.000 euro bideratuko ditu, iaz baino 30.000 euro gehiago, laguntza hauetara. Diruz lagundutako proiektuek ezagutza berria sortu beharko dute, ondare material higiezin eta higigarriaren babesa hobetzeko. Kultura-ondare immaterialaren ikerketa ez dago deialdi honetan sartuta diru-laguntza lerro propio bat du eta.

Ikerketek Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ondareari buruzkoak izan beharko dute beti, eta interesdunek iturri dokumentaletara, bibliografikoetara, arkeologikoetara, toponimikoetara, grafikoetara, ikusmen-iturrietara eta ahozko transmisio-iturrietara jo beharko dute.

Diruz lagun daitezkeen proiektuek 2022an hasita egon beharko dute, edo 2023ko urriaren 25a baino lehen amaitu. Emandako laguntzak diruz lagun daitezkeen gastuen % 100era irits daitezke, betiere 15.000 eurotik beherakoak badira.

Aurreko deialdian 12 proiektu lagundu ziren diruz, eta horien artean daude herrietako jarduera metalurgikoei buruzko ikerketak, Bizkaiko Burdin Aroko populazio-patroiei buruzkoak, industria-ondare aktiboari buruzkoak, itsas arkeologiari buruzkoak eta Bizkaiko ehungintza erlijiosoaren ondarearen ezagutzari buruzko hurbilketa bat, besteak beste.

2022-2023ko deialdirako eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

## Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

### **Euskadiko Iraunkortasun Turistikoaren Lurralde Planaren lehenengo deialdirako 11 hitzarmen onartu dira, 24 milioi eurokoak**

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburu Javier Hurtadok Euskadiko Iraunkortasun Turistikoko lehen Lurralde Planaren hitzarmenak aurkeztu ditu gaur, Urdaibain garatutako Gobernu Kontseiluan onar daitezzen. Hitzarmen horiek 11 helmuga garatuko dituzten jardueren eta dagozkien jardueraprogramen euskarri dira. Urrats horrekin, gobernuak 24 milioi Next Generation funts emango dizkie erakunde onuradunei. Funts horiek Euskadik jasoko dituen 67 milioien lehen zatia dira, hiru deialditan, 2023ra arte.

Jasangarritasun Turistikoko Lurralde Planak sektore turistikoaren modernizazio-eta lehiakortasun-planean edo Espainiako Gobernuaren Berreskuratze-, Eraldaketa- eta Erresilientzia-planaren 14. osagaian jasotako inbertsiorik garrantzitsuenaren zati dira. Plan horrek 3.400 milioi euroko zuzkidura du sektore turistikoari zuzendutako inbertsio zuzen eta espezifikotarako.

Helmugetako jasangarritasun turistikoaren estrategiak helmugak eraldatu eta modernizatu nahi ditu, 4 ardatz nagusitan oinarrituta. Lehenik eta behin, trantsizio berde eta iraunkorraren esparruan. Bigarrenik, energia-eraginkortasuna hobetzeko ekintzekin. Hirugarrenik, eraldaketa digitalera bideratutako proiektuekin eta, azkenik, lehiakortasunaren arloko jardurekin. Ekimen horien helburu nagusia iraunkortasuna esparru guztietan indartzea da, batez ere ingurumenean, eta hori indartu egiten da Ingurumenaren Mundu Eguneko ekitaldien barruan dagoen gobernu-kontseilu honetan.

## Trabajo y Empleo

### **CONVOCADAS LAS SUBVENCIONES PARA EL FUNCIONAMIENTO DE LAS ORGANIZACIONES SINDICALES**

El Consejo de Gobierno, a propuesta de la Vicelehendakari y consejera de Trabajo y Empleo, Idoia Mendi, ha aprobado hoy las bases para la convocatoria de subvenciones para el funcionamiento de las organizaciones sindicales. El importe de la convocatoria es de 1.055.678 euros.

Podrán acceder las organizaciones sindicales con representación en la Comunidad Autónoma del País Vasco, y las ayudas deberán destinarse a la financiación de los gastos corrientes de la actividad sindical, así como de cuantos gastos sean necesarios para la organización y funcionamiento de sus oficinas y servicios.

## Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente

### **EUSKADI CONTARÁ CON LA PRIMERA ESTRATEGIA QUE ABORDA LA PROTECCIÓN DEL SUELO DE FORMA INTEGRAL**

- **Con esta nueva estrategia, el Gobierno Vasco busca lograr suelos saludables para la biodiversidad y las personas, y una degradación neta cero para mitad de siglo**
- **El presupuesto operativo recogido para el periodo 2022-2030 asciende a 137,5 millones de euros, que se destinarán al desarrollo de las 69 actuaciones previstas en el documento**

El Gobierno Vasco ha aprobado la primera Estrategia de Protección del Suelo de Euskadi 2030 que aborda de forma integral la gestión del suelo, superando la tradicional visión de trabajo en suelos contaminados, donde Euskadi es una referencia en el ámbito europeo. Se convierte, así, en una estrategia pionera por su enfoque, tanto en Euskadi como en el Estado. En Europa, tan sólo unos pocos estados o regiones, como Suiza, Escocia, Gales u Holanda, tienen políticas similares de gestión integral del suelo.

La Estrategia, coordinada por el Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco y en la que han tomado parte numerosas entidades, marca el ambicioso objetivo de evitar, a través de la gestión sostenible del suelo, la degradación de este medio en términos netos para mitad de siglo, a la vez que se garantiza su conservación en términos de salud para la biodiversidad y las personas.

El documento asume que las actividades humanas afectan a la calidad del suelo y que el desarrollo social y económico conlleva inevitablemente su utilización. En este contexto, se marcan dos grandes objetivos; por un lado, minimizar su ocupación, a través de la valorización de los suelos ya antropizados, es decir, modificados por la actividad humana y, por otro lado, compensar los efectos del uso de suelo virgen, sin olvidar la necesidad de restaurar los suelos sometidos a procesos de degradación.

La Estrategia de Protección del Suelo de Euskadi 2030 define cinco objetivos estratégicos que son: la reducción del consumo de suelo; la gestión de su ocupación; la protección de impactos perjudiciales; la restauración de los suelos degradados con el objeto de recuperar las funciones que le son propias teniendo en cuenta su ubicación; y la protección a través de la gestión y su uso sostenible por profesionales formados para ello y por una ciudadanía sensibilizada.

